GIDA DIDAKTIKOA

# Justizia eraiki, etorkizuna sortu!

2010
Pobrezia eta
Gizarte Bazterketaren
Aurkako
Urte Europearra

Cáritas
Bizkaia

Balioak dituen gizartea
etorkizuna duen gizartea

Argitalpena: Cáritas Bizkaia
(Nazioarteko Lankidetza eta Migrazio, eta Komunikazio Arloak).
Erribera 8, behea. 48005-Bilbao.
caritasbi@caritasbi.org - www.caritasbi.org

Diseinu eta maketazioa: st3 elkartea
Itzulpena: Artez Koop.E. eta Luis Mª Larruzea
Imprimaketa: Gráficas Ingugom S.A.

## 2010eko APIRILEKO KANPAINAREN SARRERA

Cáritas Bilboko Elizbarrutiko Elizaren erakunde ofiziala da eta bere karitatezko eginkizuna eta zeregin soziala justiziaren alde lan eginez betetzen du, gizarte-ekintzaren bidez. Eginkizun horretan Cáritasek kristau-elkarte osoaren parte-hartzea bultzatzen eta dinamizatzen du, eta jarduera horretan Eliza askotarikoa, irekia eta integratzailea[1] ageri da.

Bilboko Elizbarrutiko Cáritasek honako hauengana zuzentzen du bere ekintza: beren duintasuna mehatxupean ikusten dutenengana eta bazterketa-egoeran dauden pertsonengana, betiere, lehentasuna emanez, ahaztuta daudenei eta gizartean ez erantzunik, ez laguntzarik aurkitzen ez dutenei. Ekintza hori hurbiletik egiten da eta denok bizitza duina eta benetan gizatiarra izateko daukagun eskubidea defendatzeko erabaki sendoaren adierazpen gisa.

Cáritasek zenbait programa garatzen ditu bere helburuak gauzatzeko: Oinarrizko Gizarte Ekintza (OGE), Haurrak, Etxebakoak, Droga-mendekotasunak, Nagusiak, Familia eta Gizarteratzea, Lan munduan txertatzea, Nazioarteko Lankidetza eta Migrazioak eta abar.

Cáritasek, Nazioarteko Lankidetza eta Migrazioak izeneko programaren bidez, tokiko ikuspegia eta ikuspegi globala suspertzen du, pertsona guztien duintasuna eta eskubideak aitortu daitezen.

2010eko urte honetan, Pobreziaren eta Bazterketaren aurkako Borrokaren Europako Urtearekin batera eta Milurtekoaren Helburuak berrikustearekin bat eginez, honako asmoak ditu Lankidetza eta Migrazioen Programatik bultzatzen den kanpainak:

- Herri guztientzako irekita dagoen karitatearen dimentsio unibertsalaz sentsibilizatzea, betiere, karitatea zentzu honetan ulertuta: maitasun eta zerbitzu testigantza, batez ere behartsuenekin.

- Kontzientzia sortzea gure bizitzeko ohiturek eta jarrerek herrialde aberastuen eta pobretuen arteko harreman bidegabeetan dituzten inplikazioei buruz.

- Parte hartzea eta mobilizazioa sustatzea tokiko mailan eta maila globalean, harreman bidezkoagoak eta zuzenagoak bultzatzeko.

Horretarako, lau gai zehatz aukeratu dira; gai horietan argi ikusten da gure erabakiek zer-nolako ondorioak dituzten, ez bakarrik gertuko errealitatean, baita herrialde pobretuetan ere.

- **Maquilak:** mendebaldeko gizartean arroparen kontsumoak izan duen gorakada izugarriak, batetik, eta multinazionalen aldetik, kostuak gutxituz, ahalik eta etekin handiena atera nahiak, bestetik, badute bere ezkutuko aldea: inguru pobreenetan kokatzen diren enpresak, garapenerako ekarpenik egiten ez dutenak, eta langileen eskubideak erabat ahazten dituztenak.

- **Koltana:** bizitzeko era kontsumista honek gero eta gehiago eskatzen ditu mugikorrak, bideo-kontsolak, MP3ak, plasma telebistak... Baina horrelakoak ekoizteko koltana behar da; konposatu kimiko horretan bi mineral daude konbinatuta: kolonbita eta tantalita. Konposatu hori Afrikan dago gehienbat, eta, hori lortzeko, besteak beste, gerrak, lan-esplotazioa, migrazioak eta ingurumen-kalteak sortzen dira.

- **Transgenikoak:** genetikoki eraldatutako elikagaiak produzitzeak ez du laborantza babestu, ez du produktibitatea gehitu eta gosearen arazoa konpondu, esaten zen bezala. Aitzitik, orain, nekazaritza-bioteknologiako konpainia transnazional gutxi

1 Cáritasen Eginkizuna. Bilboko Elizbarrutiko Cáritasen Plan Estrategikoa 2006-2010.

batzuek kontrolatzen dute munduko merkatua eta beren arauak ezartzen dituzte, zein labore landu eta, beraz, kontsumitu behar den esanez. Monopolio horren helburua da nekazari txikien lepotik ahalik eta etekin handiena lortzea eta eragina dauka biodibertsitatearen galeran eta oreka ekologikoan.

- **Nekazaritza-erregaiak:** industriak eta pertsonen nahiz merkantzien joan-etorria gehitu izanak –biak ere gure bizitzeko eraren ondorioak-, petrolioa eta ikatza bezalako baliabide fosilekiko mendekotasun handia eragiten dute. Baliabide horiek ez dira agorrezinak; beraz, nekazaritza-erregaiak sortu dira, garraiorako energia-iturri alternatibo gisa. Horiek ekoizteak, ordea, ondorio larriak dakartza; besteak beste, lurzoruen degradazioa, biodibertsitatea galtzea, deforestazioa, hainbat labore galtzea, osasun- eta elikagai-burujabetza galtzea...

Hautatu diren gaiei buruzko hausnarketa errazteko asmoz, honako material hauek prestatu dira:

- Kartelak
- Liburuxkak
- Dosier didaktikoak:

1. **Gida didaktikoa**; irakasle eta laguntzaileentzat. Gida bakoitzak informazioa eta bitartekoak ematen ditu lau gaiak lantzeko; gai bakoitza honako ataletan dago banatuta:
    a. Zer dira? (zer da?)
    b. Testuingurua
    c. Ondorioak
    d. Zer egin dezaket nik?

2. **Koaderno** laburragoak, IKUSI-IRITZI-JARDUN formatukoak; ikasleentzat eta 12-16 urtekoen taldeentzat.

2010eko apirila

Kontsultarik edo laguntzarik behar izanez gero, jo ezazue Bilboko Elizbarrutiko Cáritasera:

Erribera kalea, 8 (Zazpi Kaleak)
48005 Bilbao
koopera@caritasbi.org
94 402 00 70/53

# Nekazaritza-erregaiak: ibilgailuak elikatzeko elikagaiak

## ZER DIRA?

Materia organikoa oinarri hartuta produzitzen diren erregaiak dira nekazaritza-erregaiak. Hiru motatakoak daude:

- **Etanola** (gasolinazko ibilgailuentzat). Azukre edo almidoi asko duten landareetatik lortzen da alkohol hori; esaterako, artoa, azukre-kanabera, erremolatxa edo zerealak.
- **Biodiesela** (diesel motorrentzat). Olio hori, oliotan aberatsak diren landareetatik lortzen da; adibidez, Soja, jatrofa (Mexiko eta Erdialdeko Amerikatik datorren zuhaizka oleginosoa), palmondoa, koltza edo ekilorea.
- Bestalde, badira **Biogasak** ere, materia organikoen (janari hondakinen) hartziduratik sortutako metanoa.

AEB, Brasil eta Europar Batasuna dira nekazaritza-erregaien produktorerik handienak. Latinoamerikari dagokionez, hauek dira produktore nagusiak: Brasil (etanola lortzen du kanaberatik eta biodiesela sojatik) eta Argentina (biodiesela sojatik eta etanola azukre-kanaberatik). Bigarren kasuan, esportatu ere egiten du Txinako merkatu gorakorraz baliatuz.

Etanolaren kasuan, AEB eta Brasil dira munduan gehien ekoizten duten herrialdeak. Estatu Batuek munduan egiten den arto-esportazioaren %70 produzitzen dute, gutxi gorabehera. Brasilek azukre-kanabera erabiltzen du etanola egiteko, eta gaur egun, berak merkaturatzen du produktu hori ia mundu erdian.

## SORTZEN DUEN, EUSTEN DION ETA ELIKATZEN DUEN TESTUINGURUA

Estatu Batuek eta Europak nekazaritza-erregaiak proposatzen dituzte aldaketa klimatikoari, nekazaritzaren krisiari eta petrolioaren jabe diren Estatuekin dituzten arazoei aurre egiteko. Gai polemiko bezain konplexua da, energia eta elikadura zuzeneko lehian sartzen baitira. Ikus dezagun nekazaritza-erregaien alde egiteak zer dakarren:

Nekazaritza-erregaiak produzitzeko, lur-eremu zabalak behar dira lehengaiak landatzeko. Zenbait adibide:

- Europan egindako aurreikuspenen arabera, lurreko garraioan aplikatzeko biomasatik datozen erregaiak %20 izango dira 2020an, eta %5,75, 2010ean. Konpromiso horri aurre egiteko, Europak bere laborantza-lurren %70 erabili beharko luke.
- AEBen kasuan, arto eta sojaren uzta guztia etanol eta biodiesel bihurtu beharko litzateke.
- Erresuma Batuan, esaterako, herrialdeak laborantzarako dituen lursail guztien bost halako beharko lituzke ibilgailu guztiak elikatzeko.

Horregatik, Iparraldeko herrialde asko Hegoalderi begira jarri dira beren premiak asetzeko; argudiatzen dutenez, lursail erabilgarri gehiago eta eguraldi-baldintza hobeak daude han. Aurreikuspen ofizialen arabera, horrek esan nahi du, 2020an erabiliko den bioetanolaren %77 Hegoaldean landatu arren, kopuru horren %81 Iparraldean kontsumituko dela[1]. Iparraldea energia gose da, baina ezin du bere kontsumorako beste produzitu eta Hegoaldeari agindu behar dio falta zaion produkzio gehigarri hori.

FAOk salatzen duenez, gaur egun AEBetako ibilgailuek kontsumitzen duten arto-bolumenak, janaria falta duten 82 herrialdeetako inportazio-beharrizanak estali ahalko lituzke. 50 litro nekazaritza-erregai egiteko 232 kilo arto behar dira, hau da, ume bat urtebetean elikatzeko beste.

Energiarako laborantza Hego Amerikara edo Afrikara eramatearen aldekoek diotenez, herrialde horiek aberastasuna sortzeko aukera ekonomiko ezin hobea dute esportazioaren bidetik.

Iritzi horretakoak dira sektore askotako enpresa multinazional handiak. Petrolio-talde handiek eta nekazaritza-industrian, automobilgintzan eta ingeniaritza genetikoan dihardutenek indar handiko akordioak sinatu dituzte, honakoak kontrolatzeko: ikerketa eta produkzioa, gure elikadura-sistemaren aldaketa eta banaketa eta erregaien horniketa. Zenbait adibide:

- BP petrolio-konpainiak DuPont bioteknologia-enpresarekin bat egin zuen, Britainia Handian biobutanolaren merkatua hornitzeko eta, aldi berean, jatrofaren laborantzan inbertitzeko. Estatuek finkatu dituzten portzentajeekin, nekazaritza-erregaiek ez diote lehiarik egiten gasolinari; hala ere, petrolio-konpainiak negozioan sartuta daude, baliabide hori ere kontrolpean izateko. Enpresa handiek negozio bikainak egiteko aukera ikusi dute, bai produkzioek bai dirulaguntzek (produkzioak errentagarriak izan daitezen) gora egin dutelako, nekazaritza-erregaien produkzioari dagokionez.
- Monsanto eta Syngenta bezalako bioteknologia-enpresek areagotu egin dute hazi transgenikoen inguruko produkzioa eta ikerketa. Bistakoa da bioteknologia eta nekazaritza-erregaien arteko lotura estua. Zenbat eta nekazaritza-erregai gehiago, soja eta arto hibridoaren produkzio handiagoa behar da; horrek esan nahi du, hazi transgenikoen eta pestiziden salmentak ugaritu egingo direla.

1 (Txostena: Biofuels for transport. An International perspective. Nazioarteko Energiaren Agentzia).

- Automobilgintzak gainprodukzioa izaten du urtero, eta, industria oso indartsua denez, salmentak handitzeko aukera ezin hobea ikusi du nekazaritza-erregaietan; horrela, ez du industriaren hazkundea gelditu behar, eta ingurumenaren argudioa dauka gainera.

## ONDORIOAK ETA ERAGINAK

Nekazaritza-erregaien alternatiba, transgenikoekin gertatu den bezala, munduko arazo nagusiei irtenbidea emateko aukera gisa ikusten da; hala ere, ez kasu batean ez bestean, ez dira kalkulatzen eta hausnartzen jarri zer kostu dituen horrek, eta ez kostu ekonomikoak bakarrik. Azter ditzagun horietako batzuk:

- Nekazaritza-erregaiak masiboki ekoizten direnean, hein handi batean berotegi-efektuaren erantzule diren zenbait jarduera areagotzen dira (nitrogenodun ongarrien erabilera, deforestazioa). Energia fosil bidez produzitutako ongarriak eta pestizidak erabilita ere kalte ekologikoak sortzen dira. Gaur egun, produktu kimiko horien 45 milioi tona erabiltzen dira urtean, mundu guztian.
- Nekazaritzako jatorrizko produktuak garraiatu eta eraldatu edota kontsumituko diren lekura eramateko orduan, petrolio bidezko energiak erabiltzen dira, eta hori ere ekologiaren fakturan gehitu behar da.
- Horien bidez lortzen den energia dela-eta, iritzi kontrajarriak daude; batzuen ustez, produzitzen dena baino energia gehiago erabiltzen da produzitzen, nekazaritza-erregaiak ekoizteko energia-kopuru handia behar baita. Produkzio-prozesu osoa kontuan hartuz gero, olio-palmondotik ateratako biodiesel tona bakoitza produzitzeak petrolioak baino $CO^2$ gehiago isurtzen du.
- Elikagaien prezioak gora egiten du; izan ere, janaritarako salduko liratekeen uztak prezio garestiagoan saltzen dira, nekazaritza-erregaietarako lehengai moduan. Horri guztiari, multinazional handien espekulazioa gehitu behar zaio: oraingo nahiz etorkizuneko alea kontrolatzen dute, eta labore horiek gordez gero, prezioek gora egiten dute.
- Elikagaien arloan segurtasunik eza, sarri askotan monolaborantza energetikoek tokiko laboreak ordezkatzen dituztelako. Horrek guztiak elikagaien gaineko burujabetza galtzea dakar, gizakiaren suntsiketa, komunitate indigenak bereiztea, hirietara ihes egitea, eta nekazaritzako lanik ezak eragindako nazioarteko migrazioa.
- Nekazaritza-eredu industriala sustatzea, lurrak pertsona gutxi batzuen eskuetan kontzentratzea ahalbideratzen duena; jabe txikiak, ondorioz, lurrik gabe uzten ditu horrek, legez kanpo, behin baino gehiagotan. Paraguain, adibidez, lurren %75 biztanleen %2ren eskuetan dago.
- Industrien esku geratzen da zer eta nola landatu behar den erabakitzea eta, horiek, irabazi ekonomikoak nola handitu beste helbururik ez dute, lurzoruen degradazioa edo biodibertsitatearen galera aintzat hartu gabe. Monolaborantzak ez du biderik uzten elikagai dibertsifikatuak ekoizteko.
- Etanola eta biodiesela ekoizteko egin behar den deforestazioak, erregai naturalak erabilita murriztuko litzatekeena baino kutsadura gehiago sortzen du. Brasilen, azukre-kanabera landatzen den hein berean desagertzen da oihana, lehortzen dira hezeguneak eta kanporatzen da ganadua.

Nekazaritza-erregaietan oinarritutako efizientzia energetikoa ez dago bermatuta; petrolio garestia behar da, lur-eremu izugarriak eta elikagai merkeak errentagarria izateko. Gainera, ez dira askorik murrizten berotegi-efektua sortzen duten gasak. Errentagarritasunari eta elikagaien laborantza galtzeari buruzko kritikak etorri direnean, lehenengo eta bigarren belaunaldiko nekazaritza-erregaiez hitz egiten hasi dira.

- Lehenengo belaunaldiko nekazaritza-erregaiak, elikadurara bideraturiko lehengaietatik ateratakoak dira (artoa, soja...).
- Bigarren belaunaldiko nekazaritza-erregaiak, berriz, elikadurara bideratzen ez diren lehengaietatik datozenak dira. Jangarriak ez diren materia organikotik ateratakoak, hau da, zelulosa, algak, egurra, nekazaritzako hondakinak… Horiek, ordea, ez dira ekonomikoki bideragarriak, produzitzeko behar den teknologiak asko garestitzen dituelako kostuak. Dena den, horiekin ere ez da bermatzen ondoriorik ez dutela izango; batez ere, biodibertsitatea, elikagaien produkzioa eta lurraren gaineko eskubideak kolokan jartzen dituen monolaborantzan oinarritutako ustiapen handien ereduari jarraituz gero. Lurzoruaren erabileran konpetentzia saihesteko, landu gabeko lursail hondakinak okupatzeko proposamena egin da. Batzuentzat hondakinak direnak, ordea, bizi-iturri dira beste batzuentzat.
  Nekazaritza-dieselaren kasuan, eskala handiko erregaia den heinean, eta lur-sail handiak behar dituenez, jatrofa ordezko landare aproposa dela uste da. Zuhaixka horren fruituak, izan ere, artoak baino 4 bider nekazaritza-diesel gehiago produzitzen du, eta sojak baino 10 bider gehiago. Ez da jangarria, eta basoberritze prozesuan aukera bat izan daitekeen arren, zenbait azterlanek adierazi dutenez, landare horrek askoz ur-kopuru handiagoa behar du azukre-kanaberak edo artoak baino.

## ZER EGIN DEZAKET NIK?

Nahitaezkoa da gure garraio eredua, ekonomia eta, oro har, bizimodua berraztertzea, une honetan erabat sostengaezina baita. Zer egin dezakegu?

- Erabili garraio publikoa
- Partekatu zure ibilgailua
- Birziklatu etxean erabiltzen duzun olioa. Birziklatutako olioarekin nekazaritza-diesela egiten da.
- Informa zaitez eta ezagutu itzazu beste bizi-garapen eredu baten alde lan egiten duten mugimenduak eta plataformak, esaterako, **deshazkundearen aldekoak;** horien ustez, planeta honek muga bat du eta ezin da etengabe hazten jarraitu. Tokiko ekonomia biziagoen alde egiten dute, baliabideak askoz ere gutxiago xahutzen dituen bizi-estiloaren alde.

  Ekimen horien adibide bat:

  -Trantsizioan dauden hiriak, tokiko erantzuna nahi dutenak; zoriontasuna eta lasaitasuna ematen digun guztia sustatuz eta joera kontsumistatik urrunduz: "gutxiago hobe izan daiteke".

  (http://movimientotransicion.pbworks.com/Criterios)
- Informa zaitez eta hartu parte eredu energetiko eta sozioekonomiko berri baten alde borrokatzen duten kanpainetan (Green Peace, Amigos de la tierra, eta abar…)
- Kontsumitu bertoko produktuak (egungo deslokalizazio-ereduak dioenaren kontra), eta aurreztu energia (garraio publikoa)

## BIBLIOGRAFIA


Goblalexpress "Verde por fuera, negro por dentro" nº15. Zk. 2008koa abendua Intermon Oxfam (www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=3464)

"Los agrocombustibles ¿solución o problema?" Manos Unidas. 177. buletina. 2009ko urria-abendua.

Agrocombustibles. Otra verdad incomoda (www.bios.org.ar/r_documentos.htm)

Holtz Eric, "Cinco mitos sobre los agrocombustibles". (www.attacmadrid.org/d/8/070722113643_php/F1.pdf)




## MATERIAL DIDAKTIKOAK

1. Agrocombustibles.(www.bios.org.ar)
   Bideoa. Soja onaren ipuina (13 min.). Gaztetxoentzat.
   Dokumentua: Soja Ona ipuinaren lan-koadernoa

2. Komikia: Baso Giltzatua (www.amigos.org.ar/bosques.html). Monolaborantzaren hedapenak eta ingurumenaren pribatizazioak dakartzan ondorioei buruzkoa.

3. Bideoa: Crónicas: Los biocombustibles (40 min).

4. Goblalexpress "Verde por fuera, negro por dentro" nº15. Zk. 2008ko abendua Intermon Oxfam (www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=3464)
   Nekazaritza-erregaien gaiari buruzko dinamikak

5. Fitxa didaktikoak (www.caritasbi.org)

## ZER DA?

**Koltana** konposatu kimiko bat da, mineral biren konbinaziotik sortzen dena: kolunbita + tantalita

Naturan mineral urria izateaz gain, eta horregatik hain preziatua, koltanak ezaugarri bereziak ditu: beroari %80an eusten dio, kobrea baino eroale hobea, ez da herdoiltzen, korrosioari erresistentzia handia dio… Ezaugarri hauek bihurtzen dute teknologia berriak garatzeko ezinbesteko lehengai, eta, beraz, estrategikoa da ikuspuntu politiko, ekonomiko eta nazioartekotik.

Mineral hau gure bizimoduan funtsezkoa izatera heldu da. Telefono mugikorrak egiteko erabiltzen da, bideo-kontsolak[1], MP3-ak, ordenagailuak, arma sofistikatuak, plasma-telebistak, zuntz optikoa, espazio-industria etab.…

Min eral honen %20 Kanadan, Brasilen, Australian eta Tailandian dago, eta %80 Afrikan, Kongoko Errepublika Demokratikoan, hain zuzen ere.

[1] Ramón Lobok, El País-en, adierazi zuenez, mineral honen eskasiaren ondorioz, 2000an, Japoniako Sony enpresak atzeratu behar izan zuen bere izar-produktuaren merkaturatzea, Play Station 2arena.

## SORTZEN DUEN, EUSTEN DION ETA ELIKATZEN DUEN TESTUINGURUA

Kongoko Errepublika Demokratikoa metal preziatuetan eta baliabide energetikoetan aberatsa izateak azken hamarkadetan gerrak eta biolentzia eragin ditu, baina, horrekin batera, bere historiak espoliazioaz eta esplotazioaz ere hitz egiten digu.

Lurralde honetan, XV. mendean, merkataritza-sarea ezarri zen, esklaboen eta baliabide mineralen salerosketan aritzen zena. Esklaboen salmentak, hain zuzen, dimentsio oso handia hartuta, orduko Kongoko Erreinua ahuldu zuen. Mende batzuk geroago, belgikarrek kolonizatu zuten lurraldea, eta esplotazioa eta esklabotza eraman zizkieten bertako herriei, milioika afrikar hil zirelarik.

Nazio Batuek Bigarren Mundu Gerra igarota ekin zioten kolonizazioa amaitzeari. Lehenengo hauteskundeak 1959an egin ziren, Kongoko Mugimendu Nazionalak irabazi zituelarik, eta 1960ko uztailaren 30ean Kongok independentzia lortu zuen. Hala ere, esplotazioak bere horretan jarraitu zuen. 1965ean, Mobutuk, Mendebaldeko herrialdeek komunismoaren aurkako lagun zintzotzat zutenak, Estatu-kolpea jo zuen, eta 30 urte luze iraun zuen diktadura anker eta luzea ezarri zuen. Denbora horretan, bost mila milioiko dolarretan baloratutako ondasunak pilaturik, egonkortasun apur bat lortu zuen zigortutako kolonian, giza-eskubideen urraketa larrien truke. Era berean, hainbat meatze-enpresa anglosaxoik, beraren diktadura-garaian, kontzesioak eskuratu zituzten mineraletan aberatsenak ziren zonetan.

Mobuturen aroari amaiera eman zion Kongoko Lehenengo Gerraren ondoren, Laurent-Désire Kabilak hartu zuen boterea 1997an, eta herrialdearen lehengo izena, Zaire, kendu eta Kongoko Errepublika Demokratikoa izena jarri zion. Hurrengo urtean, Kongoko Bigarren Gerra hasi zen, afrikar kontinentean inoiz izandako gatazkarik handiena. Bederatzi herrialdek hartu zuten parte, eta 3,8 milioi pertsona hil ziren.

Gatazka hau zenbait urte lehenago joan zen prestatzen, hutu eta tutsi etnien arteko interes- eta botere borrokak zirela-eta, Laku Handien zonan. Ruandako 1994ko genozidioaren ondorioz, hutu etniako dozenaka mila pertsona Kivun babestu ziren, Errepublikaren ekialdean. Bestalde, Gerraren beste alderdia osatu zuten Kongo, Ruanda, Uganda eta Burundiko tutsiak, Mobutu boteretik kentzeko hasieran Kabila presidenteari lagundu ziotenak, ondoren matxinatu egin ziren Gobernuaren aurka, Kivu eskualdearen gaineko kontrola eta boterea lortzeagatik.

XXI. mendearen hasieran sinatutako Bake-Akordioak gora behera, gaur egun, koltan-meategi gehien dauden zona honetan hutu-miliziak eta hutu-talde erreboltariak aurkitzen ditugu, tutsi-matxinoak, kongoar militarrak, ruandar militarrak eta baita ugandar militarrak ere. Horiek guztiek beren boterea eta biolentzia erabiltzen dute koltana eta bestelako materialak kontrolatzeko.

Testuinguru konplexu honek biolentziaren, esplotazioaren eta zigorgabetasunaren gurpila elikatzen du, zeren eta talde armatu hauek guztiek mineralak behar baitituzte, finantzatzen jarraitzeko. Gainera, ez dago kontrolik meategien ustiapen- eta kudeaketa-baldintzei buruz, eta horrek mineralaren espoliazioa errazten die Ugandari, Ruandari eta kongoar sekzio militar batzuei. Zentzu honetan, esan dezakegu koltan-trafikoak, Angolan eta Sierra Leonan gertatzen den bezala, gerra elikatzen duela eta gerra behar duela, aldi berean.

Baina, arazoaren dimentsioa ez da barrukoa bakarrik. Komeni da gogoratzea partekatu egin zela erantzukizuna Madeleine Albright-ek "Afrikako lehen gerra mundiala" deitu zuen horretan. Mendebaldeko multinazional handiak lehian aritu ziren lurraldearen kontrola bertako aliatuen bidez eskuratzeko, gerra finantzatuz eta zonaren desegonkortasuna eraginez, nazioarteko erakundeen pasibotasunaren aurrean. Alberto Vázquez-Figueroa idazlearen "Coltan" nobelako protagonistak dioenez, "oso laster, koltanik ez duena telekomunikazioen industriatik kanpo geratuko da", edo "Kongo kontrolatzen duenak merkatua kontrolatuko du". Esaldi hauek ezin hobeto definitzen dute mugitzen diren interesen itzelezko neurria.

Asko dira etekinak lortzen dituztenak eta, horren ondorioz, egoera iraunarazten eta elikatzen dutenak:

- Multinazionalak (Alcatel, Ericsson, Motorola, Nokia, Siemens, IBM, HP…), beren etekina kontrolik gabe esplotatuz bilatzen dutelako.
- Gobernu ustelak, multinazionalen konplizeak eta, aldi berean, beraien zerbitzurako txotxongiloak.

- NBE bezalako nazioarteko erakundeak: beraien pasibotasunak herrialde aberatsenekiko morrontza islatzen du.
- Indar militarrak eta talde armatu matxinoak, Ipar-Kivu muga-eskualdean mugakide diren Ruandak edo Ugandak antolatu, finantzatu eta lagundutakoak.
- Komunikabideak, multinazionalen interesen arabera, batzuetan talde baten edo bestearen aldeko iritzi-joera sortzen laguntzen dutenak.
- Aberastutako herrialdeetako pertsonak, multinazionalek eskainitako produktuak kontsumitzen ditugulako, jatorria kontuan hartu gabe, ezta ere zer ondorio sortzen dituen produktu horien komertzializazioak herrialde haietako biztanleen bizitzan.

Beraz, baliabide mineralak kontrolatzeko barruko eta kanpoko borrokak ezaugarri iraunkorra izan dira eta jarraitzen dute izaten Kongoko Errepublika Demokratikoaren historian eta bere bilakabide sozio-politikoan. Horren ondorioz, Kongoko Errepublika Demokratikoak "ugaritasunaren kontraesana" jasaten eta bizi du. Batetik, baliabide naturaletan munduko herrialderik aberatsenetakoa da. Koltanaren mundu mailako monopolioa izateaz gain, planetako kobaltoaren %50 dauka, kasirita, urrea, kobrea, petrolioa , gasa, zura, zinka, ikatza, zilarra, beruna eta burdina. Eta, bestetik, 58 milioi biztanleen erdia baino gehiago, gaur egun, ofizialki, egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi da. Edo, bestela esanda, Kongoko Errepublika Demokratikoa biodibertsitatean munduko bigarren herrialde aberatsena da, Brasilen ondoren, eta, hala ere, Afrikako herrialderik pobretuena da, Zimbaweren atzetik.

## ONDORIOAK ETA ERAGINAK

- **Gerra-gatazkak:** horren ondorioz, 5 milioi pertsona hil ziren 1996 -2003 aldian. (Kongoko Bigarren Gerra = Afrika osoko gatazkarik handiena).
- **Osasun-arazoak:** gaixotasunak, $CO^2$ eta Sufre-kopuru handiagatik. "*Journal of Radiological Protection* aldizkariaren 2007ko azken alean, Nairobiko Unibertsitateko Fisika Departamenduko eta Zientzia Nuklearretako Institutuko zientifikoek adierazi zutenez, erradiazio-dosi altuak detektatu zituzten koltana erauzten artisau-eran aritzen ziren kongoar langileengan"[2].
- **Goseteak eta desplazamenduak:** kasu batzuetan izaten den muturreko biolentziak eta orokortutako segurtasunik ezak eraginda, ehunka mila pertsonak beren etxeak utzi behar izan dituzte, eta nekez bete ahal dituzte oinarrizko beharrak: janaria, aterpea, urhornidura, hezkuntza, atentzio medikoa, babesa…
- Emakume gazteei, atsoei eta neskatxoei gerra-arma bezala egindako **sexu-bortxaketak**. Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak salatu zuenez, Iparraldeko Kivu-ko emakumeentzat jarduerarik arruntenak ere izaten dira arriskutsuak. Baina, bortxaketa ez da beraien mehatxu bakarra. Emakume asko baztertu egiten dituzte, bortxaketa jasan dutela jakitean, eta familiek ere zapuzten dituzte. Neska asko ezingo dira ezkondu. Bortxaketa jasan duten emakumeek, beraz, bizirauteko borrokari egin behar diote aurre egunero.
- **Beldurra eta segurtasunik ez zona osoan,** eta horrek, 2008an, 2 milioitik gora pertsonaren desplazamendua eragin du, alderrai ibiltzera behartuta.*

** Kongoko Caritas-Développementen manifestua, Espainian, 2009ko martxoan.*

2 Artikulu hau Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Geologia Zientzietako Fakultateko Meatokietako katedratikoa den Rosario Lunar-ek eta bere lankide Jesús Martínez Frias-ek egin zuten. 2007-09-26ko El Países argitaratu zen.



- **Esklabotza eta lan-esplotazioa.** Meategiak artisau-eran ustiatzen dira[3], eta talde armatuek zaintzen dituzte, inolako kontrolik edo lan-baldintzen erregularizaziorik gabe. Langileak meategietara erakartzeko dolarrak nahiko ez direnean, bestelako moduak daude langileak derrigortzeko.
- **Haurren esplotazioa eta eskola-absentismoa**. Haurrak lan-indar bezala erabiltzen dira, zeren eta, beraien gorputz txikiak direla-eta, erraz sartzen baitira lur-arraseko meategietan.
- **Soroak eta nekazaritza bertan behera utzita geratzen dira, harrapaketengatik eta segurtasunik ezagatik.** Kongoko esportaziorako nekazaritza-produkzioak, kotoiarenak eta bestelako gaienak, balioa galdu du eta lehengo nekazari eta abeltzain askok orain meategietan lan egiten dute.
- **Ingurumen-hondamendiak** (euri azidoa eta deforestazioa) **eta ondorio oso larriak bertako faunarentzat:** babestutako animaliak, gorilak edo elefanteak, kasu. Gerrillek ehizatzen dituzte, larrua eta bolia saltzeko; haragia, minerala meategietatik ateratzen duten langileak elikatzeko erabiltzen da.
- **Iparraldeko herrialdeak aberastea:** EEBB, Alemania, Holanda, Belgika… teknologia berriak garatzeko behar diren mineralak merkaturatzeagatik, horren ondorioz Kivu-ren eta Kongoko Errepublika Demokratiko osoaren pobretzea eragiten dutelarik.

3 Dozenaka gizonezkok ilaran jarrita lan egiten dute, zulo handiak eginez, mineralak lurpetik ateratzeko. Erauzitako mineralak urez nahasten dira, eta hortik sortutako lokatza garbiketa-hodi handietan isurtzen da. Bertan, metalak duen pisuagatik, hondoan geratuko da.

## ZER EGIN DEZAKET NIK?

- Egoera hau SMS, Facebook, Twenti, blog-en bidez zabaldu… Facebook-en, "odolik gabeko koltana" izeneko talde bat dago, egia zabaldu nahi duena "urre urdina" deitutakoari buruz; eta exijitu nahi die kontsumitzaileei koltana erauztearen eta erabiltzearen prezioa milioika bizitza ez izatea.
- Gure mugikorrak, ordenagailuak, MP3ak… **modu arrazoizkoan** erabili.

  Kontua ez da uneoro aparatu teknologiko berrienak edukitzea, erabili ere egiten ez ditugun aplikazioak eskaintzen dizkigutenak. Ulertu behar dugu publizitatearen zeregina benetan ez ditugun beharrak sortzea dela. Modu arduratsuan kontsumitzen ikasi behar da; batez ere, arlo honetan arduragabeki jokatzeak pobretutako herrialdeetan zein ondorio dituen ikusita.
- **Behar ez ditugun aparatu teknologikoak birziklatu.** GKE batzuek erabilitako mugikorrak jasotzen dituzte, telefonia-sarerik ez dagoen zonetan, edo egoera onean ez daudenetan, banatzeko.
- Osagairen bat birziklatzen duten enpresei eskatu **pobretutako herrialdeetarako laguntza-proiektuetan inberti dezatela**.
- Parte hartu Kongoko Errepublika Demokratikoko baliabide energetikoen esplotazioa **salatzen eta kondenatzen duten** GKEen kanpainetan.
- Kanpaina honen edo bestelakoen bidez **ezagutu dugun errealitatea gure inguru hurbilenean zabaldu**: gure aroko garapen teknologiko izugarriaren oinarrian, inolako etikarik gabeko printzipioak daudela, eta honek ondorio oso larriak eragiten dituela.
- **Multinazionalei eskatu** beraien erantzukizun sozial korporatiboko politikak aplikatzeko eta ez dezatela **legez kanpoko merkatutik** datorren eta "odolez zikinduta" dagoen koltanik erosi, GKEen kanpainekin bat eginik .
- Horretarako eskumena duten nazioarteko erakundeei exijitu zigorrak jarri diezazkietela NBEk "Kongoren harrapaketa" deitutakoan inplikatutako enpresa eta herrialdeei, GKEen kanpainekin bat eginik.

## MATERIAL DIDAKTIKOA

- Alberto Vázquez-Figueroak Cuarto Milenio-n izandako parte-hartzea. YouTube-ko bideoak, web honetan ikus daitezkeenak: http://miraloqueveo.com/2008/10/21/la-dictadura-del-coltan/
- "Coltán" nobela, Alberto Vázquez-Figueroarena.
- Bideoa: "Congo: Minerales de guerra". En portada, RTVE (37 min).

# MAQUILAK

## ZER DA?

**Maquila** enpresa multinazionalen kontratista den enpresa esportatzailea da. Bertan, ahaztuta daude langileen eskubideak (soldata baxuak, lanaldi jasanezinak, lan-baldintza lotsagarriak...) Maquilak gaur egun "neo-esklabismo" deitzen denaren adierazpen nagusia dira. Beraien funtzioa muntatzea da, produktua egitea iparretik datozen lehengai eta makinekin, ondoren produktu hori berriro iparraldeko merkatalguneetara bidaltzeko. Horregatik itsasten dira "made in USA" edo "made in Spain" etiketak, Indian, Marokon, Guatemalan edo Mexikon josi arren[1].

Maquilak **zona frankoetan** (maquila-guneak) jartzen dira: industriagune hauek hegoaldeko gobernuek sortzen dituzte atzerriko multinazionalen inbertsioak erakartzeko. Zona franko hauetan, gobernuek pribilegio ekonomikoak eskaintzen dizkiete enpresei: ez dute zergarik ordaintzen, dirua erraz atera dezakete herrialdetik eta, gainera, gobernuak zerbitzu-enpresen egitura bat du multinazionalei zuzendua. Enpresa kontratatzaileen interesa lan-eskuaren kostua murriztea da, eta ingurumen-araudia saihestea. Maquilak munduko zona hauetan daude hedatuen: **Txinako kostaldea, Erdialdeko Amerika, Filipinak, Taiwan, Vietnam, Tailandia, Malasia, Kanbodia, India, Hong Kong.**

Maquiletan, langile gehienak emakumezkoak dira, gazteak, ikasketarik gabeak, eta prestakuntza eskasekoak beren lan- eta konstituzio-eskubideez. Kasu askotan, **emakumeak** nekazaritza-zonetakoak izaten dira. Enpresariek nahiago dute emakumeak kontratatu, gizonek baino soldata baxuagoa jasotzen dutelako. Nahiago dute emakumeak ezkonduak edo amak izatea, horrela aparteko ordu asko egin ditzaten presioa egin ahal izateko. Hala ere, emakume langileak baldintza hauetan edukitzeko enpresariek duten armarik eraginkorrena biolentzia da, eta hau modu guztietan erabiltzen dute: fisikoa, psikikoa, hitzezkoa eta sexuala.

1 Lanaren Nazioarteko Erakundearen artikulua

Ehungintza da **haurren lan-eskuaz** esklabotza-baldintzetan baliatzen den sektoreetako bat. Industria honek teknologia baxuko makineria erabiltzen duenez, ez du oso lan-esku kualifikaturik behar. Kasu hauetan, haurren lana informaltzat hartutako sektoreetan edo ezkutuko ekonomiakoetan erabiltzen da, azpikontratatutako tailer klandestinoetan, edo etxeko lanean... Produkzio hau, normalean, enpresa multinazionalei lotuta dago.

## SORTZEN DUEN, EUSTEN DION ETA ELIKATZEN DUEN TESTUINGURUA

Bigarren mundu-gerraren ondoren, mendebaldeko arropa-kontsumoa izugarri hazi zen. Neurri-ra egindako arropa seriean egiten hasi zen, zuntz kimikoak merkaturatzeari esker, hauek gaur egun munduko ehungintzaren erdia baino gehiago hartzen dutelarik. Metodo teknologiko berrien ondorioz, %40 jaitsi da langileen beharra, eta produkzioa sektoreko mundu mailako hamar-hamabost enpresa handitan kontzentratu da.

70. eta 80.eko hamarkadetatik aurrera, Europako eta Ipar Amerikako arropa-marka handiak ehungintza Europako herrialde industrializatuetatik Asiako eta Erdialdeko Amerikako herrialde industrializatu berrietara eramaten hasi ziren. Arrazoiak hauek izan ziren: batetik, soldaten **kostua murriztea,** herrialde horietan askoz merkeagoak baitziren, eta, bestetik, produkzioa handitzea. Ikus ditzagun, jarraian, adibide batzuk:

*Nadiak moda-enpresa ezagun bat hornitzen duen Marokoko lantegi batean lan egiten du. Gutxieneko soldata irabazten du: 1 € orduko.*

*Maríak Bulgarian lan egiten du. 60 € irabazten ditu hilean, nahiz eta etxetiko lana arautzen duten erakundeek esaten duten lau kideko bere familia mantentzeko 200€ irabazi beharko lituzkeela. Mariari piezako ordaintzen diote (kopuru finko bat egiten duen soineko bakoitzeko, ez orduko). Gutxieneko soldatara heldu nahi badu, egunean 16 ordu eman behar ditu lanean. Gehiago irabazteko, familia osoak, seme-alabek ere bai, laguntzen diote.*

*Lekit txinatar fabrikan, 12 ordukoa da lan-jardunaldi ohikoa, horietatik 4 derrigorrez egindako aparteko orduak izanik. Pertsonalak aparteko orduak egiten ditu astelehenetik larunbatera eta, batzuetan, igandeetan ere bai. Egia esan, Lekit-eko langile gehienek igande arratsaldeetan baino ez dute jai egiten, eta produkzio-aldean daudenei gutxitan ematen zaizkie atseden-egunak, eskatu arren. 2007ko urtarrilean, aparteko ordu-kopurua 160ra iritsi zen, hilean gehienez baimendutako 36 orduak halako 4,5. Kopuru horretara iristeko, asteko aparteko 40 ordu egin behar izan ziren.*

Multinazionalek eta gobernuek justifikatu egiten dituzte maquilak esanez lagundu egiten dietela herrialdea industrializatzeari eta hazkuntza ekonomikoari. Baina, errealitatean, teknologia ez da benetan transferitzen, zeren eta jantzigintzaren parterik errazena eramaten baita bertara, prestakuntzarik eta mekanizazio handirik behar ez duena. Horren ondorioz, langileei ez zaie prestakuntzarik ematen, soldata erreala gutxienekoa baino baxuagoa izan daiteke, eta multinazionalek nahi dutenean alde egin ahal dute herrialdetik, bertan produkzio-egiturarik utzi gabe.



Globalizazio-testuinguru honetan, eta erakundeek gizartean duten eginkizunaren inguruko kezkak bultzatuta, 90.eko hamarkadaren amaieran enpresen erantzukizun sozialerako politikak garatzen hasi ziren, baita beraien produktuak ekoizten dituzten tailer eta lantegietan ezarri beharreko lan-jokabideetarako kodeak. Horrekin batera, monitoretza-sistemak diseinatu dira kode horiek betetzen diren egiaztatzeko.

Enpresen Erantzukizun Soziala enpresa kudeatzeko kultura berria da, helburu estrategiko hauek dituena: erantzukizuna barneratzea eta horrekin batera doan epe luzerako balio-sortzea, enpresaren aktibitateak eragiten dien interes-talde guztiei begira (enplegatuak, akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, lehiakideak, gizarte-eragileak, administrazio publikoak, komunitate lokala eta gizartea, or ohar).[2]

Enpresen Erantzukizun Sozialak 20 urtetik gora dituen arren, hor dirau oraindik ere ehungintzako emakume langileen miseria-egoerak, zeren eta erantzukizun sozialaren argudioek ahaztu egiten baitute nazioarteko enpresen etekin izugarriek eta beraien presio-ahalmenak oinarri hartzen dutela deslokalizaziorako etengabeko mehatxuan eta mundu osoko langileei ezartzen zaien lehiakortasun itzelean, nazioarteko inbertsiogileei produkzio-kosturik baxuenak eskaintzeko.

Egoera honen atzean, esplotazio-egoera hau errazten duten **nazioarteko merkataritza-arauak** daude.

Merkataritza hegoaldeko herrialde askotan librea dela esaten den arren, ezin diete nahi duten arropa guztia saldu Europar Batasunari edo Estatu Batuei. Gaur egun, munduko herrialde guztiek sinatuta daukate muga-zergak murrizteko akordio bat, nazioarteko merkataritzak traba gutxiago edukitzeko. Akordio hau Merkataritzako Munduko Erakundearen Nazioarteko Akordioen barruan dago.

Hala ere, zergak mundu osoan murrizteak ez du merkataritza librea ahalbidetu. Iparraldeko gobernuek lege-behar gehiago sortu dituzte (sanitarioak, enbalajeari lotutakoak, kuotak), hegoaldeko herrialdeetatik ateratzen diren produktu merkeagoei sartzen ez uzteko eta beraien lehiakortasunari aurre egiteko.

Eskala-ekonomiek ahalbidetu egiten diete banaketa-erraldoiei bezeroen aurrean prezio izugarri baxuekin aurkeztea, itzelezko etekinak ateratzen dituzten bitartean. Baina, hori soldata miserableen truke esplotazio-baldintzetan lan egiten duten milioika pertsonari esker lortzen dute.

Krisi-garaietan, arrazoizkoa izan liteke soldata duinek eragin lezaketen prezioen gorakadagatik kezkatzea. Hala ere, lan-kostua Europan saltzen diren jantzien prezioaren %3 (gehienez) baino ez da. Oraingo soldatak bikoiztuta, 20€ko kamiseta baten truke, kontsumitzaileek gutxi gorabehera 60 zentimo gehiago ordainduko lituzkete.

2 Enpresen Erantzukizun sozialaren printzipioak eta arauak: NBEren Global Compact, EBren Liburu berdea, ELGAren multinazionalentzako gidalerroak, LANEren Hiruko Adierazpena, Mundu-Bankuaren Ekuadorreko Printzipioak, AECAren arauak, etab.

## ONDORIOAK ETA ERAGINAK

- Maquiletan lan egitea oso kaltegarria da **osasunerako**, eta asistentzia sanitarioa ez da inola ere nahikoa. Hauek dira osasun-arazo ohikoenak: artritisa, arnasbideetako eta biriketako arazoak, estresa, alergiak, muskulu-akidura eta akidura mentala, eskuetako arazoak, ikusmenekoak, giltzurrunetako eta gibeleko kalteak.

- **Istripuak** etengabe enpresetan. Instalazioetan inolako segurtasun-neurririk ez dagoenez, sarritan gertatzen dira istripuak eta suteak. 2006ko otsail-martxoan, Bangladesh-en zenbait lantegi erori eta, gutxienez, 100 langile hil ziren eta asko zauritu. Elkarrizketatutako langileek adierazi zutenez, emergentzia-irteerak askotan trabatuta egon ohi dira.

- **Lan-eskubiderik eza**. Mundu osoko maquiletan, ia ez dago sindikatu independenterik; kexek, beraz, kaleratze- edo erailketa moduko erantzunak izaten dituzte. Langile gehienek ez dute beren eskubideen berri, eta lantegietako zuzendari eta jabeek neurriak hartzen dituzte sindikaturik ez sortzeko. Honek sortzen duen beldur-giroa dela eta, lantegi hauetan ez da langile-antolamendurik sortzen.

- Lotura zuzena dago maquila-enpresak instalatzearen eta nekazari-guneetatik maquila-kokalekuetara egiten den **barne-migrazioaren** artean.

- Erdialdeko Amerikan, 90.eko urteetan, nekazaritza-produktuek esportazioen %50 osatzen zuten, eta ehungintzak %24. Egoera guztiz aldatu zen 2000.eko hamarkadarako, eta orain ehungintzak zonako esportazio guzien %50etik gora osatzen du, nekazaritza-sektorea %5ean geratu delarik. Honek **maquila-sektorearekiko mendekotasun handia** erakusten du, Erdialdeko Amerikako gobernuen politika okerrengatik, zeren eta inbertsio arinak erakartzeari ekin baitzioten nekazaritza-produkzioaren kaltetan.

- Krisi ekonomikoa dela eta, "**enara-kapitalen" ihesa** gertatzen ari da Asiako herrialde pobreenetarantz; horren ondorioz, 2008.aren azkenean, Erdialdeko Amerikako ehungintzak 51.538 lanpostu galdu zituen, horietatik %65 emakumezkoenak. *Enara-kapitala* esapidea Latinoamerikan sortu zen bertara aldi labur baterako heltzen den kanpo-kapitala izendatzeko. *Enara-kapitalen bidez,* ekonomistek *paper-zorroko* inbertsioak deitutakoak egiten dira, inbertsio errealetatik bereizten direnak, zeren eta errealen bidez enpresa sendoak eta iraunkorrak muntatzen baitira, desmuntatu eta herrialdetik goizetik gauera atera ezin daitezkeenak.

## ZER EGIN DEZAKET NIK?

- Informazioa eskuratu: Kontsumitzaile kritiko eta arduratsua izan.
  - Kontsumitzen ditugun produktuak nondik datozen jakin, zein baldintzatan egin diren, merkeenak lortzeko bilaketatik harago joan.
  - Gaian sakontzea errazten diguten webetara jo: www.edualter.org www.rel-uita.org/ www.omal.info

- Behar dudana erosi: moda, publizitate, eskaintzen gainetik... *Ez dut hainbeste behar zoriontsua izateko.*

- Salaketa, heziketa eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu. Adibidez, Arropa Garbia kanpaina www.ropalimpia.org
  - Protesta-mailak, eskutitzak eta/edo faxak enpresetara edo administrazio publikoetara bidali.
  -
  - Konpainia eta gobernuei presioa egiteko, mailak, eskutitzak eta/edo faxak masiboki bidali, gatazkak modu egokian eta eraikitzailean konpon daitezen neurriak hartu ditzaten.
  - Elkartasun-mailak, eskutitzak eta/edo faxak langileei eta beraien erakundeetara bidali.
- Bidezko merkataritzako produktuak, ekologikoak... kontsumitu.

- Erabili behar ez dugun arropa familiarrei edo lagunei eman, edo arropa baliabide gutxiko gizarte-sektoreen artean banatzen duten elkarteei.

- Bigarren eskuko dendetara hurbildu.

kidenda
caritas misioak alboan

- Kidendan boluntarioa izan (bidezko merkataritzako proiektua, Caritasek, Elizbarrutiko Misioek eta Alboanek bultzatua) www.kidenda.org

- Ezagutu Koopera eta elkartu beraiekin: talde hau ekimen sozialeko hainbat kooperatibak eta laneratzeko enpresak osatzen dute. Bere helburua gizarte-bazterkeriari aurre egitea da, eta gizarte-esklusio egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonak gizartean eta lanean integratzea, batez ere ingurugiroaren aldeko jardueren bidez." www.koopera.org

koopera
red social gizarte sarea

## BIBLIOGRAFIA


- "La crisis anunciada de los capitales golondrina". www.rel-uita.org
- "Las zonas francas para la exportación: Las maquilas". www.edualter.org
- "Ropa Limpia Kanpaina"


## MATERIAL DIDAKTIKOAK

- **DVD** "Corazones valientes en la resistencia" Ehungintzako kanbodiar langileei eta suediar kontsumitzaileei buruzko pelikula, Ideas-ena (www.ideas.coop).
- **DVD** "Maquiladoras" Maquilen egoera Nikaraguan, 2003an, Hegoarena
- **DVD "**Golpeados pero no Vencidos". Maquilen egoera Erdialdeko Amerikan. Iraupena: Ordubete eta erdi.
- **DVD "**China Blue". Maquilen egoera Asian. Iraupena: Ordubete eta erdi.
- **DVD:** "El lado oscuro de la sanidad" Ehungintzako eta material sanitarioko maquilen egoera Pakistanen eta Indian. Iraupena: 20 minutu.
- **DVD** "Lo último en moda" Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako maquilak. Iraupena: 25 minutu.
- **DVD Made LA:** Los Angelesera doazen emakume langile latinoak.
- You tube-ko bideoa.

*DVD hauetakoren bat erabili nahi baduzue, Caritasekin harremanetan jarri ahal zarete, telefono hauen bidez: 94 402 00 73/ 94 402 0053*

- **Alboanen gazteentzako talde-dinamika "Cati Rodríguezen kasua".** Alboanen www.alboan.org webean aurkitu ahal duzue, "Tierra a la Vista" material didaktikoen sailean.
- **SETEM-en Dinamikak:** Caritasen www.caritasbi.org webean aurkitu daiteke; kanpaina berrien atalean kontsultatu.

# Labore transgenikoak eta diseinuzko laboreak

## ZER DIRA?

Ingeniaritza genetikoaren teknologiari esker genetikoki eraldatzen diren laboreak dira labore transgenikoak. Izaki bizidun bat bi modutara eraldatu daiteke:

- Bere genoma propioa eraldatuta, hau da, beste izaki baten informazio genetikorik sartu gabe. Adibidez: usteltze-prozesua geldotzeko, egitura genetikoa aldatzen zaion tomatea.
- Beste izaki bizidun baten informazio genetikoa sartuta. Adibidez: hotzari hobeto aurre egiteko, arrain baten informazio genetikoa txertatzen zaion tomatea.

Izaki berri horiei genetikoki aldatutako organismoak (OMG) edo transgenikoak deitzen zaie.

70eko hamarkadan egin ziren izaki bizidun baten informazio genetikoa beste bati txertatzearen inguruko lehen esperimentuak. 80ko hamarkadan, lehenengo landare transgenikoa sortzea lortu zen. Tabako landareari beste espezie batzuen geneak txertatu zitzaizkion, bere egituran berez ez zituen beste propietate batzuk sortzeko. Gero, zenbait elikagairekin saioak egiten hasi ziren, artoarekin esaterako; eta 90eko hamarkadaren lehen erdialdean, lehenengo elikagai transgeniko osoa merkaturatzea onartu zen AEBetan: "Flav Savr" tomatea, gehiago irauteko diseinatua. Horren ostean, belar-pozoiak kalterik egiten ez dion soja etorri zen.

Hauek dira eraldaketa ohikoenak:

- Bakterio baten geneak txertatzea, belar-pozoiekiko erresistenteagoak izan daitezen. (labore transgenikoen %75)
- Bt (Bacillus thurengiensis) lurreko bakterioaren geneak txertatzea, intsektuen aurkako toxinak sor ditzaten, konkretuki, artoari erasotzen dion zulakariaren aurkako toxinak. (labore transgenikoen %19)

Horiez gain, beste eraldaketa batzuk ere esperimentatu dira, esaterako:

- **Eguraldi-baldintzen aurreko erresistentzia** txertatzea, esaterako: hotza, lehortea, gazitasuna...
- **Osaeran eta nutrizio-balioan aldaketak** txertatzea.
- **Landare batek garapen normala izateko,** produktu kimiko jakin bat erabiltzera **behartzen duena** ("traidor" teknologia).
- **Landare bat bigarren aldiz ez ugaltzeko eraldaketa** ("terminator" teknologia), hau da, landareari hazi antzuak emanaraztea, nekazariak urtero hazi berriak erostera behartzeko.

Hauek dira munduan gehien zabaldu diren organismo transgeniko arruntenak: soja (%57), artoa (%25), kotoia (%13) eta olio-arbia edo koltza (%5) [1].

**GEO (genetikoki eraldatutako organismoak) eremu globala, laboreko**

**(114,3 milioi hektarearen gainean)**




*Askoz maila txikiagoan, biruse-kiko erresistenteak diren papaia eta zapalloa erein ziren, baita intsektuekiko erresistentea den makala eta krabelin urdina ere.*
*Iturria: ISAAA, 2007*

## SORTZEN DUEN, EUSTEN DION ETA ELIKATZEN DUEN TESTUINGURUA

Nekazaritza arloko ingeniaritza genetikoa erabiliz, genetikoki eraldatutako organismoen bidezko elikagaiak garatzeak helburu jakin bat izan zuen hasieran, hau da, laboreen babesa areagotzea, produktibitatea gehitzea eta gosearen arazoari konponbidea aurkitzea.

Espiritu produktibo horrekin ekin zitzaion, 60ko hamarkadaren erdi aldera, Iraultza Berdea zeritzonari. Bi hamarkadatan lehorteak jasan eta zerealak inportatu beharrean egon ondoren, Norman Borlaug, agronomoa eta 1970eko bakearen nobel sariduna, Indiako ikertzaileekin hasi zen lanean, errendimendu handiko bere gari-aldaerak Punjab Estatura (Indiako Ipar mendebaldea) eramateko. Hazi berriei esker, produkzioa hirukoiztu egin zen. Aldaera horiek beste edozeinek baino uzta oparoagoa eman zuten, betiere zenbait baldintzaren mende: ur ugari izatea, ongarri kimikoak eta intsektu nahiz belar txar gutxi. Apurka-apurka, aldaera horiek Asia osora hedatu ziren eta bertako laborantza tradizionala aldatu zuten. Gaur egun, eta 90eko hamarkadaren erdi aldetik hona, produktibitatearen miraria agortu egin da. Hazkunde hori, oro har, geldituta dago. Gehiegizko ureztatzeak, milioi bat putzuk baino gehiagok ustiatu duten geruza freatikoaren beherakada ekarri du eta, ondorioz, produkziora bideratutako milaka hektarea lur emankor galdu dira, lurzorua gazitu edota ura saturatu delako. Berrogei urte baino gehiago egon dira lurrak ureztatzen, eta epe horretan, ongarriak nahiz pestizidak etengabe erabili dira; horrek guztiak, jakina denez, arrastoa utzi du bai lurrean, bai lurretik bizi direnengan. Asko dira osasunean txarrera egin duten familia nekazariak, eta zorretan daudenak ere ez dira gutxi, ongarri eta pestiziden kostu ekonomikoa oso altua baita. Hori gutxi balitz, horren guztiaren ondorioz, ia 50.000 arroz-mota desberdin galdu dira.

1 Koltza, raps, kanola edo aza-arbia izeneko laborea, lore hori distiratsuak dituen landarea da. Mundu osoan landatzen da, bazka eta landare-olioa produzitzeko; giza kontsumorako eta biodiesela egiteko. Ekoizle nagusiak hauek dira: Europar Batasuna, Kanada, AEB, Australia, Txina eta India.

Gaur egun, bigarren Iraultza Berdeaz hitz egiten da, genetikoki eraldatutako organismo edo transgenikoei esker.

AEB, Argentina, Kanada eta Brasil dira munduan, labore transgenikoak landu eta produzitzeko arlo handienak dituzten herrialdeak.

Eta nola da hori posible?

Laborantzan aipatutako aldaketa horiek egin ahal izateko, garapen teknologiko esanguratsua egon da atzean, bai eta inposaketa gogorra ere, horren inguruko ezagutza patentatzen duten multinazionalen aldetik. Teknologia horren jabe diren enpresa handiak dira orain ereiten diren hazien jabe, eta globalizazioari eta merkatuen liberalizazioari esker, laborantza transgenikoaren bidez lortutako mozkinak hedatu eta saltzea lortu dute. Adibidez:

- Duela 40 bat urte, haziak saltzen zituzten enpresa gehienak familia-enpresak ziren. 2000. urtean, berriz, 10 enpresen artean kontrolatzen zuten hazien mundu-merkatuaren %30. Gaur egun, nekazaritza-bioteknologiako 4 enpresa transnazional dira merkatu osoa kontrolatzen dutenak. Honako hauek: DuPont, Syngenta, Bayer eta Monsanto. Beste hauek ere aipagarriak dira: Novartis eta Aventis.

Ondasun naturalen gaineko garapen teknologiko guztia patente-sistema batean oinarrituta dago; horiek ematen diete bai kontrola, bai jabetza multinazional handiei[2].

Hona hemen patenteen bidez lortzen den kontrolaren adibide bat: Monsato enpresak munduan ereiten diren hazi transgenikoen %90 produzitzen du, eta Roundup Ready sojaren gaineko patentea berea da. Soja-aldaera hori Roundup herbizidarekiko erresistente izateko asmatu zuten, eta herbizida ere enpresa berak fabrikatzen du. Patente horrek, baina, badu beste baldintza bat; izan ere, hazi hori erabiltzen duen nekazariak ezin izango du hurrengo denboraldirako gorde. Hori horrela, enpresak badu barne-departamentu bat, patenteen eskubideak urratzeagatik salaketak tramitatzen dituena. Arazoa, beraz, ez da MG haziak gorde ezina, edozein hazi-mota gordetzeko eskubidea debekatzeko joera baizik.

## ONDORIOAK ETA ERAGINAK

60ko hamarkadako Iraultza Berdean gertatu bezala, laborantza transgenikoak ondorioak eragiten ditu, bai nekazaritzan, bai mundu guztiko pertsonen elikadura-eskubidean. Eragin horiek konplexuak eta elkarren mendekoak dira, egituraren aldetik izaera globala baitute. Orokortasun hori, hala ere, milioika lagunek jasan beharreko arazo oso zehatzetan islatzen da.

### Ingurumenean dituen ondorioak

Ondorio nagusia biodibertsitatearen galera izan da, eta eragina izan du oreka ekologikoan. Betidanik desagertu izan dira espezieak eta arrazak, baina arrazoi naturalak direla medio; gaur egun, aldiz, gizakiaren jarduerak dira, oro har, biodibertsitatearen galeran eragin handiena dutenak (laborantzarako lurrak galtzea, bertoko espezie tradizionalen ordez aldaera komertzialak ereitea, elikadura-ereduak aldatzea, sukaldaritzako ezagutza galtzea, organismo bizidunen gaineko jabetza...).

Ekosistemek eta biodibertsitatearen ziklo naturalek aldaketa ugari jasan dituzte (lur azpian bizi diren animalien kutsatzea, lurraren emankortasunak pairatutako eragina, intsektuentzako babesleku eta elikadura diren landare-espezieak desagertzea, basa-landareek eta intsektuek herbiziden aurrean garatu duten erresistentzia…).

Geneen inguruko ezagutza eta, ondorioz, horien eraginaren inguruko ezagutza oraintsu arte mugatua izan bada ere, dagoeneko efektu esanguratsuak gertatu dira mundu zabalean, hala nola:

- **Kutsadura genetikoa eta dibertsitatearen galera.** Genetikoki Eraldatutako Organismoek (OMG) hedatzeko eta basa-espezieetan ingeniaritza genetikoko geneak

2 Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) TRIPS (Trade-Related Aspects of Intellectual Property Rights) akordioen arabera, estatu sinatzaileek landareekiko jabetza intelektualen bat ezarriko dute.
Hazi transgenikoen patenteak errealitate bihurtu dira AEBn, Auzitegi gorenak, 1980an, organismo bizidunekiko patenteak baimendu zituenetik.

txertatzeko duten gaitasuna. Labore transgenikoek labore naturalak polinizatzen dituztenean, azken horiek genetikoki kutsatzen dituzte. Laborantza tradizionalaren kutsadura genetikoak ez dauka atzera bueltarik; kontrola ezinezkoa da; beraz, ondorengo guztiak transgeniko bilakatuko dira, laborantza tradizionalak betiko galdu eta elikagai naturalak kontsumitzeko aukera eta eskubidea ere bai. Mexikon, adibidez, artoaren dibertsitate eta jatorriaren muinean, AEBetatik inportatutako arto transgenikoak bertako espezieak kutsatzen ari dira. Soja transgenikoa inportatzeari dagokionez, Txinako Gobernuak erakutsi duen permisibitateak, kolokan jarri du labore horren jatorria eta dibertsitate-zentroa. Polinizazioa faktore naturalen bidez gauzatzen da eta, beraz, ezinezkoa da hori kontrolatzea. Horrez gain, **oreka ekologikoa galtzen ari da** beste organismoek duten suszeptibilitatea dela medio (adib.: arto transgenikoaren polena toxikoa da onuragarri zaizkigun eta laborantzari kalterik egiten ez dieten zenbait intsekturentzat).

- **Lurraren kutsadura.** Genetikoki Eraldatutako Bt (Bacillus thuringiensis) Organismoak, zenbait izurriteri aurre egiteko gai direnak, plagizidak dira eurak ere; izan ere, toxina bat da Bt, lurrean pilatzen den toxina, hain zuzen ere.
- **Kutsadura kimikoa.** Belar-pozoiekiko tolerantziak, izurriak eta belar txarrak egokitzea ekar lezake; horiei aurre egiteko, beraz, geroz eta pestizida toxikogoak erabili beharko lirateke. Lurzoruan, uretan eta elikagaietan geroz eta glifosato (Monsanto-ren RR soja transgenikoarekin lotutako belar-pozoia) gehiago dago. Bt landareei dagokienez, dagoeneko badira erresistentzia garatu duten zenbait izurrite.

Bost kontinenteetan aurki ditzakegu kutsadura transgenikoari buruzko azterlanak, baita Euskadin ere; laborantzako partzela esperimentalak baliatu dira, landa zabalean, tomateak, artoa eta garia aztertzeko Nafarroan, eta, patata, Araban. Genet (www.genet-info.org).

**Nekazaritzan dituen ondorioak**

- **Ohiko laboreen kutsadura genetikoa.** Espainian kutsadura-kasu ugari izan dira, eta nekazari eta abeltzain ekologiko bat baino gehiagori kendu zaio lizentzia, transgenikoen erabilera debekatuta baitago.
- **Nekazariek multinazional batzuekiko duten mendekotasuna.** Hazien merkatua enpresa gutxi batzuen esku dago (transgenikoen %90 Monsanto enpresaren patentepean dago), eta gauza bera gertatzen da bestelako produktu kimikoekin (pestizidak, belar-pozoiak, ongarriak…). Multinazional horiek beren haziak patentatu dituzte. Patente horiei biopatente deitzen zaie. Biodibertsitatearen aberastasuna betidanik izan da herrien ondarea; zentzu horretan, inoiz ere ez du izan jaberik eta nekazariei sekula ez zaie kobratu euren lanaren bitartez lortutako hazia erabiltzeagatik. Hazi hori, produktoreentzat ezinbesteko baliabidea izateaz gain, elikadura-subiranotasunaren oinarria ere bada[3].

  Mendeetan hazi horien inguruan egin izan den kudeaketa funtsezkoa izan da nekazaritzaren dibertsitatearentzat, ekosistema desberdinen orekarentzat, eta nekazaritzarekin lotutako kultura ezagutu eta elkar trukatzeko.

  Multinazionalen kontrol eta boterearen eraginez, espezie asko merkaturatu ez edo suntsitu egiten dira, irabazien arabera betiere. Erabakiak hartzeko unean irizpide ekonomikoak baino ez dira hartzen kontuan, eta nekazaritzaren arloan dihardutenek ez dute inolako aukerarik zer erein erabakitzeko, eta kontsumitzaileek ezin dute aukeratu zer jan.

**Osasunean dituen eraginak (Greenpeace)**

Oso gutxi aztertu da genetikoki eraldatutako organismoek zer-nolako eragina edo arriskuak

3 "Elikagai-burujabetza herriek, komunitateek eta herrialdeek duten ESKUBIDEA da. Bakoitzak bere nekazaritza, arrantza eta elikagai arloko politikak definitzeko eskubidea dauka, bere zirkunstantzien arabera ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki aproposak izan daitezen. Horrek esan nahi du benetan eskubidea dugula elikadurarako eta elikagaiak ekoizteko. Beraz, herritarrek elikadura osasuntsu eta egokia izateko eta euren burua eta gizartea mantentzeko eskubidea dute. 2002an Erroman egin zen GKE/GZE (ONG/OSC) Foroa, Elikagai-burujabetzaren inguruan.

sortzen dituzten, epe luzea, gure elikaduran edo gure elikagai-kateko animalien elikaduran.

Ingeniaritza genetikoak, funtsean, bi modutara eragin dezake elikagaien segurtasunean:

- geneen alterazioak edo ezegonkortasunak landareak toxina berriak sortzea eragin dezake.
- gene arrotz horrek sorturiko proteinek alergiak edota toxikotasuna eragin ditzakete.

Transgenikoek osasunean eragiten dituzten efektuen artean, honakoak aipa daitezke:

- Alergia berriak agertzea, elikagaietan proteina berriak sartu direlako. AEBetan, "Starlink Artoa"ren kasu famatuan (2000), gizakiaren kontsumorako baimenik ez zuen arto transgeniko baten arrastoak aurkitu ziren elikagaien katean, eta arazo larriak eragin zituen erreakzio alergikoengatik.
- Gizakiarentzat patogenoak diren bakterioetan antibiotikoekiko erresistentziak agertzea, hau da, zenbait transgenikok antibiotikoekiko (esaterako, amoxizilina) erresistentzia transferitu diezaiekete bakterioei. Britainia Handiko Medikuen Elkarteak gene horien erabilpena debekatzea gomendatu du.
- Elikagaietan toxiko berriak agertzea, Bt laboreen kasuan bezala. Elikagaiak gero eta kutsatuago daude, nekazaritzan gero eta produktu kimiko gehiago erabiltzen direlako.
- Ernaltzeko gaitasuna murriztea. Austriako gobernuak argitaratu duen azterlan baten arabera, genetikoki eraldatutako artoz elikatu diren saguen ugalkortasunak kalte handiak jasan zituen, eta ohiko artoz elikatutako saguek baino kume gutxiago izan zituzten.

Alabaina, transgenikoek osasunean duten eragina ez dator elikagaiak kontsumitze hutsetik; laborantza-ereduak ere badu zerikusirik. Horrenbeste ongarri eta pestizida erabiltzearen ondorioz, nekazariak toxikatu egiten dira, bai airea kutsatzen delako, bai akuiferoetako ura kutsatzen delako.

**Ondorio sozioekonomikoak**

- **Genetikoki eraldatutako organismoak arma gisa erabiltzen dira gosearen kontrako borrokan;** hala ere, eta bitxia izan arren, labore horien hein handi bat ez da giza kontsumora bideratzen. Herrialde txiroetako artoa eta soja, batez ere, animalientzako elikagai gisa esportatzen dira. Gainera, egun, 1.020 milioitik gora dira munduan gosez daudenak, azken hamarkadetan baino gehiago. Arazoa, ordea, ez da mundu guztiarentzako beste elikagai ez produzitzea, baliabideen banaketa txarra baizik. Laborantza transgeniko masiboa erabiltzea erabaki duten herrialdeak nekazaritza ez-iraunkor baten adibide argia dira. Hori da Argentinaren kasua. Herrialde horretan, 2006an, soja transgenikoa modu masiboan sartu zenean, ordura arte nekazaritza sektorean bizi zen krisia areagotu eta nabarmen gehitu zen bertako basoen suntsiketa. Bestelako efektuak ere eragin zituen: landa-lurretako nahiz hiri-lurretako biztanleen lekualdatzea, belar-pozoien erabilera gehitzea, eta bertan kontsumitzeko elikagaien ordezkapen larria. Argentinako elikadura-krisian, desnutrizio kasuak gehitu ahala, soja eta artoaren esportazioei esker herrialde aberatsetako abelburuak elikatzen jarraitu zen.
- Garapen bidean dauden herrialde askotako dietan ageri den **mikroelikagaien defizitak** zuzeneko lotura du nekazaritza eta abeltzaintzako biodibertsitate gabeziarekin; izan ere, oro har, barazkiak, frutak eta elikagai freskoak falta dira. Labore bakarra lantzea sustatzen duen nekazaritza intentsibo eta transgenikoaren ereduak arazo horiek guztiak areagotu baino ez ditu egiten.
- Genetikoki Eraldatutako Organismoen erabilpen hori nekazaritzako eredu jakin bati gehitu behar zaio; eredu horretan, lurjabe handien eta multinazionalen konpetentziak irentsi egin ditu jabe txikien nekazaritza-eredu tradizionalak eta, ondorioz, milioika lagunek **lekuz aldatu eta emigratu** egin behar izan dute.

## ZER EGIN DEZAKET NIK?

- Exijitu zure udalerri eta gobernuari "Transgenikoetatik libre" aitortzeko[4].
- Ez erabili elikagai transgenikorik.
- Informa zaitez transgenikoek osasunean eta ingurumenean duten eraginaz. Kontsumitzaileok presioa egin behar diegu agintariei, transgenikoek osasunean eta ingurumenean duten eragina aztertzeko ikerketak egin ditzaten.
- Sustatu ezazu nekazaritza ekologikoa, hau da, gai kimikorik erabiltzen ez duena; eta lehenetsi tokiko produktuak, ekologian eragin gutxiago baitute.
- Defendatu elikagai-burujabetza.
- Exijitu produktuen etiketatzea , jakiteko eta aukeratzeko eskubidea errespetatu dadin.
- Egin bat errebindikazio-plataformaren batekin (EHNE, ONGD elikagai-burujabetzaren arloan dihardutenak, edota *Via Campesina* bezalako bestelako sareak…)

## BIBLIOGRAFIA


- "Guía roja y verde de alimentos transgénicos". Greenpeace (www.greenpeace.es)
- "¿Qué sabes de los transgénicos?" Greenpeace (www.greenpeace.es)
- Salomone, Mónica: "La guerra de los transgénicos". El país Semanal. 1727. zk., 2009ko azaroak 1.
- Bourne Joel K.: "El Fin de la Abundancia". National Geographic. 2009ko abuztua (55, 60,61,62,63 orrialdeak)
- Nekazaritzako ingeniaritza genetikoari buruzko dossierra: Ikerketa, teknologia eta jabetza intelektuala. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE)
- Rosset Peter, Collins Joseph, Moore Lappé Frances: "Revolución verde. Lecciones". 2004 (www.eco-sitio.com.ar/ea_09_lecciones_revolucion_verde.htm)


## MATERIAL DIDAKTIKOA

1. Agroerregaiak.(www.bios.org.ar/r_documentos.htm). Transgenikoen gaia agroerregaien gaiarekin lotzen duen ipuina

   Bideoa. Soja onaren ipuina (13 min.). Gaztetxoentzat.

   Dokumentua: Soja Ona ipuinaren lan-koadernoa

2. Transgenikoei buruzko dinamikak (www.edualter.org/material/transgenicos/transg.htm)

   -Patenteen esanahia, elikagaien gaineko jabetza. Adibidea: Kakaoa (www.edualter.org/transgénicos/cacao.htm)

   -Nekazaritzako ustiapenei buruzko rol-jokoa: monolaborantzak (www.edualter.org/material/transgenicos/revolucion.htm)

3. Bideoak: Janariaren etorkizuna; Elikagai transgenikoak. Canal Odisea (54 min)

   ¿Qué comemos hoy?: alimentos transgénicos y biológicos (Documanía 29 min).

4. Fitxa didaktikoak: www.caritasbi.org

---

4 TRANSGENIKORIK GABEKO ERKIDEGOAK Asturias, Balear uharteak, Kanariar uharteak, Galizia, EAE (nekazaritzan genetikoki eraldatutako organismorik ez erabiltzeko erabakia hartu zen, 2007ko otsailaren 20ko Gobernu Batzordean. EAEren barruan, transgenikorik gabeko herriak hauek dira: Arama, Itsasondo, Elgeta, Ikaztegieta, Mutriku, Olaberri eta Zalbidia (Gipuzkoa), Abanto, Amoroto, Arratzu, Aulesti, Balmaseda, Izurtza, Muskiz, Otxandio eta Turtzioz (Bizkaia), Vitoria-Gasteiz, Valdegobia eta Amurrio (Araba). Iturria: www.tierra.org
Mundu mailan egindako adierazpenik gehienak genetikoki eraldatutako laborerik ez egotera bideratu dira. Horrek ez du esan nahi gainerako aspektuetan jarduteari uko egingo zaionik (pentsuak, I+G elikagaiak).

## 2010eko APIRILEKO KANPAINAREN ONDORIOAK

Globalizazio neoliberalaren ondorioa ez da bakarrik Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desberdintasuna dakarrela, horren bila nahita dabilela baizik.

Lau adibide zehatzen bidez ikusi dugu gure bizitzeko erak –betiere aukera pertsonala den heinean- nolako eragina duen Herrialde Pobretuetan. Eta adibide horietan guztietan ikusten diren ondorioen artean, fenomeno global bat aurkitzen dugu: immigrazioa.

Multinazionalek baliabide naturalak ustiatu edo merkantziak ekoizten dituzte Hegoaldeko herrialdeetan, hango soldata apalak eta beste lan-eskubide batzuk gutxi garatuta daudela aprobetxatuz; baina langile horiek soldata eta bizimodu hobearen bila migratu nahi dutenean, ukatu egiten zaie aukera hori.

Bizi garen mundu honetan traba asko kendu zaizkio kapitalen eta merkantzien zirkulazioari; pertsonen zirkulazio libreari dagozkionak, ordea, areagotu egin dira hesi fisiko eta legezkoen bidez. Horregatik, Atzerritarren legeak ateratzen dira gero eta gehiago; lege horiek ez dituzte immigranteen eskubideak aitortzen, haien egonaldia errentagarria izateko behar direnak bakarrik. Horren ondorioz, baimena eskatu eta lortu behar dute edozertarako: sartzeko, berton bizi eta lan egiteko, familiak berriz elkartzeko...

Gainera, immigrazioaren fenomenoa arazo ekonomiko hutsa balitz bezala tratatzen dugu, fenomeno global moduan hartu beharrean: fenomeno kulturala, ekonomikoa, soziologikoa, politikoa... Pertsona horien migrazio-proiektuan hainbat arlo sartzen dira: lana, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, jantzia, afektibitatea, aisialdia eta denbora librea. Eta, hala ere, etorkinak langile huts dira guretzat, gure eskulan premien arabera erabiltzen ditugu, kontuan hartu gabe, gure bizitzeko erak haien migratzeko erabakian izan duen erantzukizuna, eta haien jatorrizko herrialdeetan migrazio horrek dauzkan ondorioak ahaztuta: familia desegituratuak, talentuen ihesa, pobretzemaila handiagoa...

Kanpaina honen helburua da geure burua ispiluaren aurrean jartzea, Hegoaldeko errealitatean geure irudia ikus dezagun: nolakoa naiz ni oinarrizko beharrak bete gabe ditudanean, hezkuntzarik gabe, zainduko nauen familiarik gabe, behartuta immigratu behar dudanean...

Beharbada, orduan ulertuko dugu irudi horri gertatzen zaiona niri ere gertatzen zaidala, eta desberdintasunak dituen mundua mundu osatugabea dela. Bere ahalmen guztiak garatzeko eskubide oinarrizkorik gabe dagoen pertsona bakoitzeko, min hartzen du gizateriak. Horregatik, bidegabekeriak konpondu ahala, gizaki oso bihurtzen gara.

Izan ere, Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Borrokaren Europako Urteak dituen helburuen artean, oinarrizko eskubide hau aitortu beharra azpimarratzen da: pobrezian eta gizarte-bazterketan bizi diren pertsonek duintasunez bizitzeko eta gizartean zeregin aktiboa izateko duten eskubidea. Horretarako, behin eta berriz aipatzen da, gauzatuko diren ekintzetan daukagun erantzukizuna, bai indibiduala, bai kolektiboa. Aurten, gizarte-sareek eta erakundeek hainbat jarduera garatuko dituzte, eta horietan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, izan ere, pobrezia errotik kendu, banaketa bidezkoagoa egin eta inor baztertzen ez duen gizartea DENONTZAT izango da mesedegarri.

## IBAIA

Garai batean ibaia zen hemen
baldosak eta bankuak dauden tokian.
Dozena bat ibai baino gehiago daude hiriaren azpian,
zaharrenei kasu eginez gero.
Orain langile auzo bateko plaza besterik ez da.
Eta hiru makal dira ibaiak hor
azpian jarraitzen duen seinale bakar.

Denok dugu barruan uhola dakarren ibai estali bat.
Ez badira beldurrak, damuak dira.
Ez badira zalantzak, ezinak.

Mendebaleko haizeak astintzen ditu makalak.
Nekez egiten du oinez jendeak.
Laugarren pisuan emakume nagusi bat
leihotik arropak botatzen ari da:
alkandora beltza bota du eta gona kuadroduna
eta zetazko zapi horia eta galtzerdiak
eta herritik iritsi zen neguko egun hartan
soinean zeramatzan txarolezko zapata zuribeltzak.
Hegabera izoztuak ematen zuten bere oinek elurretan.

Haurrak arropen atzetik joan dira arineketan.
Ezkontzako soinekoa atera du azkenik,
makal batean pausatu da baldar,
txori pisuegi bat balitz bezala.

Zarata handi bat entzun da. Izutu egin dira oinezkoak.
Haizeak errotik atera du makaletako bat.
Zuhaitzaren erroek emakume nagusi baten eskua dirudite,
beste esku batek noiz laztanduko zain.

**Kirmen Uribe**
**Bitartean heldu eskutik**